

txintxarri

GIZARTEA

Urratsez urrats eta kidez kide ari dira elkarteetako argazkiak aldatzen

Emakume Elkartekideen II. Topaketaren atarian, herriko 11 elkarte gastronomikoetako egoeraren erradiografia egin dugu, gaiari buruzko datuak eta talde argazkiak erabilia / 8-9

KIROLA

Lander Ortega herritarra eta Eneko Sagarmendi, pilota egokituko Master Cupeko txapelkun / 10



EPLA MASTE CUP IREKIA

KULTURA

Haur Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko abiatu dute Liburu Txiki Kluba / 5

KIROLA

Xabat Martin txirrindulariak lau domina eskuratu ditu pistako Espainiako txapelketan / 11

Izurrite isila entzuteko

Ados Teatroa konpainiak '52 Hertz' antzezlanaren ekarriko du kultur etxera hilaren 25ean, 19:30ean. Oholtza gainera igoko diren Dorleta Urretabizkaia eta Martxelo Rubio antzezleekin hitz egin dugu / 2-3



ADOS TEATROA

2MÓ 259€
betaurreko progresiboak
batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA



hitzordua
eskatu



www.multiópticas.com



R.P.S. 93/25

Iñigo Gonzalez Sarobe

Aukeratu gabeko bakardadeak, izurrite isil baten tankeran, herri industrializatueta bizi diren bost lagunetik bati eragiten dio da-goeneko. Azpiegiturazko arazoa da, zeharkakoa eta lehen mailakoa, ahalik eta modu gehienetara ikusarazi beharrekoa. Problematika horri heldu eta, hori pairatzen ari diren pertsona batzuen benetako lekukotzan oinarrituta, ikusteko eta entzuteko moduko antzezlanen ondoren du Ados Teatroa konpainiak: *52 Hertz*.

Talde horretako kideek antzeztanaren dossierrean kontatu dutenez, izenburuak "soinu bitxi" baten frekuentziari egiten dio erreferentzia, azken 35 urteetan Ozeano Bareko hainbat tokitan grabatutako bati. Balea urdin baten kantuaren antzekoa da, baina hamar eta 39 hertzio arteko frekuentzian komunikatzen dira eta animalia bakarti horren ahotsa agudoagoa da, 52koa; espeziearen entzumen mugetatik kanpo geratzen da. Antza denez, jaiotzetik gorra da eta horregatik ez zuen sekula ikasi bere deiak sintonia egokian emititzen, bere espezieko beste ale bakar batek ere ezin dio erantzun.

Bada, metafora hori bihurtu da gizarte isolamenduaren sinbolo eta aukeratu gabeko bakardadea pairatzen ari diren pertsonen buruzko "ikuspegi poliedrikoa" islatzen dute antzeztanaren bidez, kontakizunean zehar elkar gurutzatuko diren pertsonaien bizipenak ehunduta. "Soinu horren oihartzunak alderik alde zeharkatzen lana, tonu ez errealista batean, irudi poetikoz eta ko-geografiaz bete".

Aktoreetako bi diren eta herriarekin lotura estua duten Dorleta Urretabizkaiaekin eta Martxelo Rubiorekin elkartu da TXINTXARRI, *52 Hertz* lanari buruz gehiago jakiteko. Hertzio kopuru zehatza (gizakien ahotsa 85etik 255eko tartean dago) jakin gabe, hizketaldia frekuentzia eta sintonia onean joan dela baieztatu dezake kazetariak.

Dorleta, orain hemen bizi ez bazara ere lasarteoriatarra zara eta, besteak beste, kuadrillako lagunak hemen dituzu. Martxelo, urte askotan udalerrian bizi eta lan (Siglo 20 tabernan, zehazki) zenuen. Biok ala biok lotura estua duzue herriarekin. Hori kontuan izanda, hilaren 25eko emanaldia berezia izango da?



'52 Hertz' antzeztaneko eszenetako bat. ADOS TEATROA

KULTURA

Gizarteko izurrite isilaren frekuentzia entzuteko

Ados Teatroa konpainiak '52 Hertz' antzeztanaren emanaldia egingo du Manuel Lekuona Kultur Etxean, hilaren 25ean, 19:30ean. Herriarekin lotura estua duten Dorleta Urretabizkaia eta Martxelo Rubio aktoreekin elkartu da TXINTXARRI obra horren nondik norakoen berri izateko

Dorleta Urretabizkaia: Bai, ilusio berezia egiten dit *52 Hertz* hemen erakusteak. Herrira etorriko naiz aspaldiko partez eta lagunak emanaldia ikustera joango dira! Emanaldiaren arabera Ainhoa Aierbe edo ni aritzen gara, eta, Lasarte-Oriara gentozela jakin nuenean, azkar asko esan nuen honetan ni ariko nintzela (barreak).

Martxelo Rubio: Horrelako lotura emozionalak dituzten emanaldiak bereziagoak izaten dira, bai. Gainera, lan honetan lantzen dugun gaian sinesten dugu, motibazio estra moduko bat ematen digute horrelakoek.

"Aukeratu gabeko bakardadearen gaia ikusarazi eta gizartea sentsibilizatzen lagundu nahi dugu"

Jorratu duzuen gaia ez da nolana hikoia: aukeratu ez den bakardadea.

D.U.: Gizartearen gaur egungo izurrite isiletako bat da, herri industrializatueta bizi diren bost pertsonatik batek pairatzen duena. Egoera horretan dauden pertsonen lekukotza errealetan oinarritutako ikerketa lanetik abiatuta hegan egin eta pertsonaiak, situazioak... sortu genituen gai hori ikusarazi ahal izateko.

M.R.: Problematika hori plazaratzea eta gizartea sentsibilizatzea da gure asmoa. Ni, adibidez, proiektuan lanean ari naizenetik aldatu nau: horrekiko dudak begirada desberdina da, eguneroan egoera horretan egon daitezkeen jende gehiago ikusten dudala iruditzen zait. Eta ez helduak edo adineko pertsonak soilik; gazteak ere bai.

D.U.: Horixe esan behar nuen, gazteen artean ere badagoela arazo hori. Ikaragarria iruditzen

zait kontua eta baita erator daitezkeen arazoak ere, euren buruaz beste egiteraino. Gainera, Martxelo, gurasoak gara biok eta seme-alabak ditugu; gaiarekiko beldurra badugu.

M.R.: Paradoxikoa da: hiperkonektatuta bizi garen honetan, gero eta isolatuago gaude.

D.U.: Iruditzen zait problematika konpontzeko neurriak eta gizarte mailan gauzatu behar ditugula baina tira, lan honen bidez ahal dugunean landu nahi direnei. Antzeztan ikusi gero súa pizteko, kontzientziatzen hasteko...

Orain arteko emanaldiak Euskal Herrian egin dituzte; bertatik kanpo ere antzeztu nahi dute

Helburu horiek lortzen ari zaretela uste duzue? Emanaldien ostean zer esan duzue ikus-entzuleek?

D.U.: Antzeztu bitartean entzuten ditugu mukiak, barreak, negar malkoak... Oso harrera polita izaten dugu, hunkituta geratzen dira emanaldien ostean. Gogoratzen zara Martxelo, Iruñekoa eta gero... Andre batek esan zigun: 'Oso beharrezkoa da hau, kontu ezazue, jendeak ikus dezala, egia delako!'

M.R.: Noski, ez baitugu gaiak modu irekian hitz egiten.

D.U.: Lotsa ematen digu 'bakarrik sentitzen naiz' esateak.

M.R.: Eta baten batek esaten badu, aurreiritziak izaten ditugu askotan: 'Bakarrik baldin bada go zerbaitengatik izango da'.

Bakarrik dagoena 52 hertziotan soinuak emititzen dituen balea da, gainerakoek entzuten ez dutena. Metafora oso deigarria erabili duzue gaia eta sorkuntza lana lotzeko.

D.U.: Ez genuen horren berri eta gu ere harritu gintuen. Eza-guna omen da, abestiak eta dauzka! Jendeak botilak botatzen ditu itsasora bareekin hitz egiteko... Kuriosoa da, bakarrik bizi da, ozeanoan, baina inork ez du entzuten.

M.R.: Isolamendu sozialaren metafora perfektua iruditzen zait: agian pertsonak ari dira laguntza eskatzen nolabait baina ez ditugu entzuten, ez gara konturatzen.

Ohikoak ez diren frekuentzietan daudela sentitzen diren eta lekukotzak eman zituzten pertsonetako batzuk integratu dituzue sorkuntza proiektua izan da hori?

D.U.: Produkzio laguntzaile gisa integratu zen Mari Cruz izeneko emakume bat, prozesu guztia bizi izan zuen estreinatuta arte. Nolabait bere ahotsa entzuten zen, emozionatu egin zen, malkotan, ukitu egiten zuen bere burua islatuta ikusi zuen.

M.R.: Ariketa katartikoa izan zen berarentzat. Hori da gure helburua, egoera horretan sentitzen direnei laguntzea. Lortuko bagenu, sekulakoa izango litzateke guretzako.

Testigantzak eman eta zenbaitek eratzte prozesuan parte hartuta ere, '52 Hertz' ez da bizipen horien erreprodukzio literal bat. Ikuskizunaren ezaugarriak beste batzuk dira.

M.R.: Berezia izan da sorkuntza prozesua. Aktoreoi, normalean, gidoia ematen digute, testuak ikasten ditugu eta entseatzeko hasten gara gero. Oraingoan ez, taldekide guztiok testurik gabe



Aukeratu gabeko bakardade egoeran dauden pertsonaiak haragitzen dituzte aktoreek. ADOS TEATROA

ekin genion lanari: sekuentziak eta eszenak eman zizkiguten baina ez kronologikoki. Kanpotik, agian, zertxobait kaotiko gisa ikus daiteke baina obra bizirik zegoen hasieratik eta aukera izan dugu ekarpen asko egiteko.

D.U.: Gogoratzen zara aurreneko egunaz, Martxelo? Proposatutak zizkiguten idaztea, eman zizkiguten egoeretan oinarritzea eta pertsonaiak sortzea. Puzzlea pixkanaka osatu genuen: ekarpen batzuk hartu genituen eta besteak ez.

M.R.: Inoiz baino irekiagoa zegoen Garbi Losada [lanaren egilea, J.A. Vitoriarekin batera] eta gauza asko erosi zizkigun.

D.U.: Oso giro polita sortu genuen denon artean. Ariketa kolektibo horren bidez gehiago inplikatu ginen guztiak.

Lana estreinatu duzue eta emanaldi ugari egin dituzue. Sorkuntza

prozesua erabat itxita dago ala lanari ekarpenak egiten jarraitzen diozue?

Biek elkarrekin: Estreinatzerako dena oso finkatuta dago baina tira, atea ez dago erabat itxita. Hori bai, gehiegi *desmadratu* gabe (barreak).

Zuzeneko emanaldietan beti gertatzen zaiguna da espero ez ditugun erreakzioak jasotzen ditugula. Txiste edo pasarte umoretsu bat propio prestatu ikus-entzuleek barre egiteko, eta kontrakoa gertatu. Eta alde-rantzizkoa ere pasatzen da, edozein huskeriarekin bat-batean jendea algaraka hastea.

Adibide zehatzik oроitzen duzue?

M.R.: Eszena batean, Sole [Dorleta berak antzezten du], depresioak jota lanetik kaleratua izan eta inorekin hitz egiten duen emakumea, kalera irteten da parean harrapatzen duen edonore-

kin mintzatzera. Orduan, Manolo [Martxelok haragitzen du pertsonaia hau] azaltzen da eta Sole parez pare ikusi bezain pronto alde egiten du. Horrekin barrez lehertu izan dira behin baino gehiagotan.

D.U.: Norkez du hori egin noizbait, pertsona batekin topo egitea saihestu eta beste aldera aldentzen hasi, telefonoa begiratu... Azken finean, gure buruez eta egunero-jokabideez barre egiten dugu.

M.R.: Gaiztoak gara ba oro har... (barreak). Txantxez aparte, uste dut jendeak beharra duela barre egiteko egunerokotasunean, ariketa beharrezkoa da eta iruditzen zait ongi funtzionatzan dutela horrelakoek *52 Hertz* lanean.

D.U.: Horregatik diogu antzezlanaren gaiak baduela berezko pisua baina ez zaiela zamatsua egingo ikus-entzuleei: umorea oso presente dago.

Interpretatzen dituzuen pertsonaiei buruzko pista batzuk eman dizkidazu. Sole eta Manolo zarete ohol-tza gainean, beraz.

D.U.: Bai, eta pertsonaia gehiago ere antzezten ditugu. Bakoitzak bizpahiru rol-edo. Batzuek protagonismo gehiago dute eta besteek gutxiago.

M.R.: Manolok, adibidez, pisu txikia du kontakizunean. Nire kasuan, protagonismo gehiago du alargun geratu eta seme-alabek bere gogoz kontra egoitza batean sartzen duten gizonak.

D.U.: Solez gain, gizon horren alabaren papera ere nik egiten dut, esate baterako. Tratu txarrak eman zizkion senarrarengandik ihes egin eta urte pare batez desagertzen da. Tarte horretan, harremana galtzen du senitarte-koekin. Familiaren gaia landu dugu horren bidez, esate baterako. Beste egoera batzuetan dauden pertsonaia ere badaude: etorri berria den etorkina edota katastroan lan egiten duenez egun osoan telefonoz hitz egiten ari dena, baina gero ingurukoekin komunikatzen ez dena.

M.R.: Egoerez eta pertsonaiez gain, eszenografia eta musika aipatzekoak iruditzen zaizkit. Sekulako ekarpena egiten diote antzezlanari.

Lasarte-Orian antzeztu ostean, zer? Emanaldi gehiago dituzue lotuta etorkizunerako?

D.U.: Bai, baditugu. Maiatzaren 15ean, adibidez, Andoaingo Bastero aretoan ariko gara. Eta beste bat aipatzearen, udaratik bueltan, irailaren 25ean, Elorrioren izango gara (Bizkaia). Orain arteko emanaldiak Euskal Herrian egin ditugu, ezta Martxelo?

M.R.: Bai, hori da. Euskal Herri-tik kanpo ere aritzea gustatuko litzaiguke, ea aukera dugun. Euskaraz nahiz gaztelaniaz prestatuta dugu ikuskizuna.

Jatorria eta lanaren fitxa teknikoa

Lasarte-Oriara laster ekarriko duten antzezlanaren proiektu transmedia baten emaitza dela azaldu dute Ados Teatra konpainiako kideek. 'Giza eskubideak eszenara' lan ildoaren barruan jorratu dute. Gizartean baztertuta egon daitezkeen pertsonekin lan egiten dute kultura sorkuntzaren bidez. 2024an aukeratu gabeko bakardadea lantzen hasi ziren eta bost minutuko dokumental txikiak egin zituzten egoera hori pairatzen ari diren pertsonekin (Giza FilMOTEKA proiektuan bildu dituzte). Hori burutu bitartean, '52 Hertz' antzezlanaren lantzen hasi ziren iazko otsailean, urrira arte. Donostian estreinatu zuten.

Fitxa teknikoa

Egileak: Garbi Losada eta J.A. Vitoria. **Euskarazko bertsioa:** Bego Losada. **Zuzendaritza:** Garbi Losada. **Zuzendaritza laguntzailea:** Dorleta Urretabizkaia. **Argiztapen diseinatzailea:** Xabier Lozano. **Musika eta soinu espazioa:** Javier Asin. **Espazio eszenikoa:** Iñigo Losada. **Jantziteria:** Tytti Thunsberg. **Aktoreak:** Joseba Apaolaza, Martxel Rubi, Ainhoa Aierbe/Dorleta Urretabizkaia, Amaia Irazabal eta Kimetz Etxabe.

Antzerkera joan nahi duzu?

2 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

52 HERTZ
Hilaren 25ean 19:30ean
Manuel Lekuona Kultur Etxean



PARTE HARTU HEMEN!
txintxarri.eus/zozetak/52-hertz

Zozketa izena ematen duten irakurleen artean egingo dugu. Eman izena hilaren 22ra arte (barne)



KULTURA

Udaberriarekin batera loratu da herriko musikarien uzta: gozatzeko hiru album

'Atzera begirada bat', 'Bidaia' eta 'Itxaroenea' lanak kaleratu dituzte

Txintxarri

Zenbait hilabetetan hango eta hemengo estudioetan egindako lan gogorraren fruituak argitaratu dituzte herriko zenbait musika proiektutako kideek, estreinako albumak horiek guztiak ere. Hiru ekarri ditugu artikulu honetara: JAGOBAREN *Atzera Begirada Bat*, Ertz taldearen *Bidaia* eta Treverb Reggae osatu duen zazpikoteak ondutako *Itxaroenea*.

JAGOBAREN proiektuari ekin dio Jagoba Mendizabal lasarteoriatarak eta, horren baitan, estudioko aurreneko lana argitaratu berri du: 11 kantuz osatutako *Atzera Begirada Bat*, Ozen estudioan grabatua. "Patxadaz entzuteko diskoa" dela adierazi du, entzuleari "arreta eta inplikazioa" eskatzen diona baina era berean "gertukoa eta ulerterraza" dena. Albuma entzungai jarri ostean, zuzeneko emanaldiak prestatzen hasia da taldekideekin batera: Beñat Bobillo 'Bobi' herrikideak eta berriki batu diren Ibon Kazalisek zein David Vilak osatuko dute laukotea. Bobik ez ezik, herrikide gehiagok parte hartu dute *Atzera begirada bat* diskoan: Bobik berak, gitarrarekin; Oihan Agirretzek, bateriarekin; Hazas zein June musikariek, zenbait kantutan kolaboratzen; eta Sara Etxerria *Basoko Maxuxta* artistak diskoko azala diseinatu du.

Estudioko aurreneko albuma kaleratu du baita ere Ertz taldeak: *Bidaia*. Sei abestiz osatutako lana plataforma digital guztietan entzungai jarri dutela iragarri dute taldekideek eta gogoz daukela entzuleen iritzia jasotzeko. Horrekin batera, zuzeneko kontzertuak prestatzen eta lotzen ere hasi dira. Haritz Harreguy ekoizlearen estudioan ondu dute album hori.

Skakeo taldean jardun bitartean gure herria eta beste asko dantzan jarritako "ganberro kuadrillak" proiektu berria du esku artean: Treverb Reggae. Azaldu dutenez, izena jamaikar doinuetan oso ohikoa den *Reverb* izeneko efektutik dator. Bada,



Ezker-eskuin: Ibon Kazalis, Beñat Bobillo, Jagoba Mendizabal eta David Vila. IÑIGO GONZALEZ



Ertz taldeko boskoteak 'Bidaia' albuma argitaratu du. MAITANE EIZMENDI



Skakeo proiektua amaitu eta Treverb Reggae taldea eratu dute. OIHAVELINO

Itxaroenea albuma argitaratu dute berriki eta, iragarri dutenez, "reggae doinuak plazara eramateko ilusio eta motibazio izugarria" dute. Norabide horretan, hasi dira jada kontzertuak ematen. Oroel Otal-ek

grabatu, nahastu eta masterizatu du albuma Arga Music Studio-n. Pantx Records eta Zuretzako Mezua zigiluekin ere kolaboratu dute Treverb taldeko musikari lasarteoriatarrek.



Udal ordezkariak, festibala aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

KULTURA

Reggae dantzaleku bilakatuko dute Andatza plaza maiatzaren 16an

Sei talde ariko dira oholtzan: Belen Natali, Agoteak, Eira, Morodo, Matah eta Green Valley. DJ bat ariko da aurretik

Txintxarri

Andatza Festibalaren bigarren edizioa aurkeztu dute asteon Agustin Valdivia alkateak eta Txus Alonso Jailetako zinegotziak. Irarri dute maiatzaren 16an aurrera eramango dutela, Andatza plazan, eta oholtza gainean zein musika talde ariko diren ere jakinarazi dute. Reggae musikaren topaleku bilakatuko dute herriko leku hori, 17:30etik aurrera.

"Izen handiko artistak" ariko dira jendaurrean, besteak beste, Green Valley. Horrekin batera, Morodo taldearen izena ere mahaigaineratu dute, baita Matah artistarena ere. Horiez gain, musika emanaldia eskainiko dute baita Belen Natali musikariak eta Eira abeslari donostiarak ere. Agoteak taldea ere eszenatoki horretan ariko da. Azken talde horretako kide bat,

gainera, herritarra dela iragarri dute hizlariak. Jaialdiari hasiera emateko, ordea, eta giroa berotze aldera, DJ emanaldia izango da, eta jakiak erosteko postuak (food truck) ere izango dira.

Agerraldia amaitu aurretik alkateak azpimarratu du Andatza Festibala "eredugarria" dela eta gisa horretako ekimenekin Lasarte-Oriako kultur eskaintza indartzen jarraitzen dutela, "kalitatezko" proposamen erakargarriekin. Horrez gain, "herriko bizitza soziala dinamizatzea eta publikoa erakartzea" ere lortzen dutela. Bestalde, Alonsok nabarmendu du, "lehenengo edizioaren arrakastaren ostean, helburua dela jaialdia erreferentziatzeko hitzordu gisa sendotzea". Agurtzeko, lasarteoriatarak eta inguruko herrietakoak bertaratzera gonbidatu dituzte.

KULTURA

Inauterietako gaia aukeratzeko epea aurreratu du udalak

2027. urteko Inauterietako gaia aukeratzeko parte hartze prozesua abiatzear du Lasarte-Oriako Udalak. Gaurtik aurrera jasoko dituzte herritarrek iritzia emateko eskuorriak etxeko postontzietan, eta horien bitartez egin beharko dute tramitea. Hala nahi duenak, sarean ere egin ahaliko du proposamena (udalaren web atarian). Maiatzaren

3ra arteko epea izango dute horretarako, eta data hori igarota, bigarren fasea jarriko dute martxan.

Mozorroretzeko gaia proposatzeko epealdi hori aurreratzea erabaki du udalak, hain zuzen ere konpartsek behar adina denbora izan dezaten mozorroak eta koreografiak pentsatu eta prestatzeko. Hori horrela, udal ordezkariak espero dute prozesu osoa (bigarren fasea barne) ekainerako amaituta izatea, eta konpartsak irailetik aurrera lanean hasteko aukera izatea.



Mirentxun aurkeztu dute arduradunek Liburu Txiki Kluba. LASARTE-ORIAKO UDALA

KULTURA

HHko ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko espazio inklusibo eta parte hartzailea

Mestiza elkartearekin elkarlanean garatuko dute Liburu Txiki Kluba programa

Txintxarri

Liburu Txiki Kluba programa aurkeztu du udalak. Mirentxu eraikinean egin dute agerraldia udal ordezkariak, hots, Gizarte Zerbitzuen egoitzan. Bertan izan dira sail horretako zinegotzi Lourdes Acevedo Beldarrain, Berdintasuneko, Garapenerako Lankidetzako eta Osasuneko eta Hezkuntza zein Gazteriako zinegotzi Maite Iglesias Sanchez eta Mestiza Elkarteko ordezkari Ana Molina.

Udal ordezkariak azpimarratu dute programa hori herriko haurren eta gazteen artean "irakurzaletasuna sustatzeko garatzen ari den lan ildo zabalago baten parte" dela. Alde batetik, ezagutzera eman berri duten Liburu Txiki Kluba dago. Haur Hezkuntzako neska-mutilei eta horien familiei zuzendutako egitasmoa da, eta ikastetxeetan garatzen da Mestiza Elkartearekin elkarlanean. Bestetik, berriz, lehendik ere aurrera eramaten ari diren Liburu Baby Kluba programa. 0 eta 3 urte bitarteko haurrei bideratutako ekimena da hori, eta larunbatero Udal Liburutegian modu jarraituan egiten da, hori ere aipatu elkartearekin elkarlanean.

Horren guztiaren harira, honako adierazpenak egin dituzte: "Ekimen horiekin adin tarte zabal bat hartzen dugu kontuan, bizitzako lehen hilabeteetatik hezkuntza sistemaren hasierako etapetara, eta irakurketa garapen pertsonal eta komunitarioaren funtsezko tresna gisa kokatzen duen ibilbide koherentea sortzen dugu".

Haur Hezkuntzako ikasleentzat

Liburu Txiki Kluba programa HH3, HH4 eta HH5eko ikasleei zuzenduta dago, eta irakurketaren inguruko "espazio inklusibo eta parte hartzaile gisa" planteatzen da; narrazioa, sormen jarduerak eta talde dinamikak uztartzen ditu. Saiok 45 minutuko iraupena dute, eta irakurketa partekatua, eskulanak eta hausnarketarako guneak biltzen dituzte. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurrera eramaten dira hitzorduak.

Saiok euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango direla iragarri dute arduradunek

Lehenengo saiok dagoeneko egin dituzte Sasoeta eta Landaberriko ikastetxeetan, eta ikasleek aktiboki parte hartu duten eskola ordutegiaren barruan programatutako jardueretan. Datorren astean, ordea, beste urrats bat egingo du programak: gurasoekin saio bateratuak antolatuko dituztela iragarri dute antolatzaileek. Horren bitartez, eskolaren, familiaren eta komunitatearen arteko lotura sendotu asmo dute.

Hizlariak nabarmendu dute ekintza multzo horrek "ikuspegi estrategiko bati" erantzuten diola, eta "politika publikoen erdigunean jartzen dituela kultura eta irakurketa". Hori, gainera, "gizarte kohesiorako, aukera berdintasunerako eta inklusiorako elementu gisa" ikusten dute. Era berean, azpimarratu dute ekimen horiek bat datozela Garapen Iraunkorreko Helburuekin, batez ere "kalitatezko hezkuntzari, berdintasunari eta desberdintasunak murrizteari" dagokienez. Hala, nabarmendu dute "haurren eta gazteen garapen integralarekiko udal konpromisoa sendotzen" dutela.

GIZARTEA

Datorren urteko egutegia ere herritarren argazkiekin osatzeko

"Udallerriaren funtsa" erakutsi beharko dute 'Lasarte-Oria zure objektiboan' lehiaketan parte hartzen duten bizilagunek

Txintxarri

Lasarte-Oria zure objektiboan ekimenaren bidez osatu nahi du udalak 2027ko egutegia eta 16 urtetik gorako herritarrak ekimenen parte hartza animatu ditu. Lehiakide bakoitzak originalak eta aurretik argitaratu gabek izan diren hiruna argazki aurkez ditzake urriaren 23a baino lehen. "Argazkigintzaren esparruko tokiko profesionalak osatutako epaimahaiak" bere iritziz onenak diren hamabi argazkiak aukeratuko ditu gero.

Udaleko Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandezek nabarmendu duenez, datorren urteko egutegian islatu nahi dute herritarrek kolektiboki Lasarte-Oria nola ikusten duten. Herritarrek lehiaketara aurkeztutako argazkiek "udallerriaren funtsa" erakutsi beharko dute, dela bertako txokoen bidez, egu-

neroko momentuen bidez edo tokiko bizitzaren eszena adierazgarrien bidez.

Arestian esan bezala lehiaketara aurkeztutako irudiek originalak eta aurretik argitaratu gabek izan beharko dute. Formatu horizontalekoak, 4:3 itxura erlaziokoak eta bereizmen handikoak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea urriaren 23an amaituko da eta parte hartu nahi dutenek Udal Erregistrora joan edo bestela udalaren webgunea erabili beharko dute.

Epaimahaiko kideek aukeratutako argazki bakoitzaren egileak 100 euroko erosketa bonua jasoko du herriko tokiko dendetan erabiltzeko. Horrez gain, portadarako hautatzen duten irudiaren egileari beste 50 euroko erosketa bonu bat emango diote.

GIZARTEA

Victoria Bailo herritarrak, 100 urte



LASARTE-ORIAKO UDALA

Apirila hastearekin batera 100 urte bete zituen Victoria Bailo Vescos herritarrak eta senitartekoekin nahiz udal ordezkariarekin (Agustin Valdivia eta Lourdes Acevedo bertaratu ziren) ospatu zuen urtemuga berezi hori. 20 urterekin etorri zen gurera bizitzera eta geroztik udallerriaren historiaren parte izan da bizilaguna. Lore sorta bat oparitu zioten, eta berak, anekdota bitxi eta barre egiteko momentu bat baino gehiago.

EKONOMIA

Udaberri giro, kolore eta usainez beteko dute Okendo plaza

Txintxarri

Behemendi eta Dekolore elkar-teekin lankidetzan XIII. Lore eta Landareen Azoka prestatu eta aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak. Hilaren 18an aurrera eramango dute, 10:00etatik 14:30era, Okendo plazan. Ekoizle eta artisauek postuak jarriko dituzte eta landareekin zerikusia duten familia jardueraz go-

zatu ahalko dute bertaratzen diren herritarrek.

"Kolorea, tradizioa eta gertutasuna" uztartu nahi dituzte antolatzaileek hilaren 18ko ferian. Okendora salgaiak ekarriko dituztenen postuetan honakoak topatu ahalko ditugula aurreratu dute: loreak; landare apaingarriak, aromatikoak eta sasoiak eskainita; edota kosmetika

naturala nahiz artisautza bezalako produktu eratorriak. Eki-menaren bidez produktu horien "salmenta zuzena sustatu" eta "lehen sektorearen lana balioan jarri" nahi dutela adierazi dute.

Salerosketarako azoka ez ezik, dibulgaziokoa eta familia girokoa izango da. 10:00etatik 14:30era bereziki haurrei zuzendutako ekimen ugari burutuko dituzte Okendon, hala nola egurrezko jolas tradizionalak edota lore eta landareen munduarekin lotutako jardueri buruzko tailerak.



Herritarren jakin-mina piztu ohi du lore eta landareen azokak. TXINTXARRI

GIZARTEA

Bigarren eskuko azoka, aurrenekoz



TXINTXARRI

Berrerabilpena sustatzeko asmoz antolatu zuten bigarren eskuko azoka Zabaleta auzoan, lehenengo aldiz. Xede horri jarraituta, orotariko objektu ederrak eta bitxiak izan ziren salgai: arropa, zapatak, jostailuak, panpinak, liburuak, seaskak... Erabiltzen ez dutenari bizitza berri bat emanez, ekonomia zirkularrarekin bat egin zuten auzotarrek, eta frontoi osoa bete zuten euren askotariko eskaintzarekin.

KULTURA

Aktore galantak direla erakutsi dute



TXINTXARRI

Antzerkiaren Nazioarteko Egunarekin bat egin eta kaleak kolorez bete zituzten Kukuka eskolako ikasleek zein irakasleek. Gaztelekutik kalejiran abiatu eta Okendo plazaraino joan ziren, bertan emanaldi ikusgarriak ematera. Horren aurretik Willem Dafoe antzezle eta aktoreak prestatutako manifestua irakurri zuten; antzerkia gure burua eta mundua ulertzeko "oso garrantzitsua dela" nabarmendu zuten.

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



IRUNE ERAUSKIN

Herria: Lasarte-Oria

Ikasketak: Axular Lizeoa.

Gradua: Enpresagintza Fakultatean, MYGADE gradua.

MyGADEk ikuspegi praktiko eta erreal bat eskaintzen du

Zein da zure adina, ze herriakoa zara, ze gradu eta ze kurtsoan zaude?

Irune Erauskin naiz, 19 urte ditut eta Lasarte-Oriakoa naiz. Duela urtebete hasi nintzen Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, MyGADE graduari. Gaur egun bigarren mailan nago eta enpresen munduan nire bidea egin nahi dudala gero eta argiago dut.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Donostiako Axular Lizeoan ikasi dut. Nire burua pertsona ardura-

tsu eta konprometitu moduan definituko nuke. Zaletasunen artean mendia nabarmenduko nuke, naturarekin konektatzeko eta deskonektatzeko.

Zergatik aukeratu zenuen MyGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Enpresen mundua betidanik interesgarria iruditu zait, eta MyGADEk ikuspegi praktiko eta erreal bat eskaintzen du. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere metodologia berritzaileagatik eta enpresekin duen loturagatik, etorkizunerako segurtasuna ematen didalako.

Nola baloratuko zenuke orain

arte unibertsitatean bizitako esperientzia?

Orokorrean oso positiboa izan da. Hasieran aldaketa handia izan zen, baina gaur egun gustura nago. Talde-lanak eta giro ona nabarmenduko nituzke, baita ikasketen izaera praktikoa ere.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia dinamikoa eta praktikoa da. Proiektuen bidez ikasten dugu, talde-lanak eginez eta benetako enpresen kasuak landuz. Horrek pentsamendu kritikoa eta autonomia sustatzen ditu.

Esperientzia internazionalen inguruan: izan duzu edo izateko asmoa duzu atzerriko esperientziarik?

Aurten Finlandian aste bateko esperientzia izan dut, oso aberasgarria. Ingelesa praktikatzeko eta ikuspegi zabaltzeko balio izan dit. Etorkizunean antzeko aukerak izateko prest nago.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, eredu dualean. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Gisat S. Coop enpresan nabil, administrazio eta kudeaketa lanetan. Dokumentazioa kudeatu, datuen analisisan lagundu eta taldearekin koordinatzen naiz.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Eredu dualak ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen dit. Horri esker, lan mundua barrutik ezagutzen ari naiz eta autonomia zein erantzukizuna garatzen ditut.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Nire burua enpresen munduan ikusten dut, bereziki pertsonen kudeaketan edo marketinean. Helburua ikasten jarraitzea eta esperientzia berriak bizitzea da.

POLITIKA

Munduaren konplexutasuna ulertzen saiatzeko ariketa errealista egin dute

Nazioarteko gaitan aditua den Igor Zulaika gonbidatu du herriko EH Bilduk

Txintxarri

Munduaren egoera orokorra gero eta ilunagoa den honetan, hilaren 15ean zerua argitsu eta urdin zegoen Lasarte-Orian. Zenbaitek kalea bete zuten birtartean, Antonio Mercero aretorea bertaratu ziren beste zenbait, Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako *Mundua sutan dago eta gu herri txiki (ukatu) bat gara* hitzaldira. Nazioarteko geopolitikaren korapiloak aztertu zituzten alderdi horretako nazioarteko politika arduradun Igor Zulaika Zurimendiren eskutik. Bi helburu nagusi jarri zizkioten saioari: batetik, egungo testuinguru globalaren irakurketa aztertzea eta partekatzea, alarmismorik gabe, baina bai seriotasunez eta erantzukizunez jokatzeko moduetan oinarrituta; eta bestetik, inor deprimitu gabe ateratzea, hori gero eta erronka zailagoa den garaiotan.

Lasarte-Oriako EH Bilduko zinegotzi Uxue Loinazek eman zuen helburuen berri eta Zulaika ere aurkeztu zuen. Hark, eskertuta, hitza hartu eta hasierako gogoeta hau partekatu zuen parean zituenekin, beraiei hitza eman aurretik: munduaren egoera "konplexua" dela onartuta, "jokabide ezkorren eta errealistaren arteko bidea urratzea" da bere helburua.

Ariketatxo hau proposatu zien segidan: erantzuteko ea zer espero zuten saiotik. Aleka-aleka hasi ziren ekarpenak egiten herritarrek: Donald Trump eta



Igor Zulaika Zurimendi, solasaldian zehar azalpenak ematen. TXINTXARRI

mehatxu atomikoa, mundu osoan irekita dauden gatazkak (Palestina edota Irangoa, kasu), egiztat saldu dizkiguten zenbat gezur irentsi ote ditugun edota Europaren eta Euskal Herriaren rola gaur egungo testuinguruan.

Euskal Herria, subiranotasunera Azken kontu horri heldu zion Zulaikak. Azaldu zuen EH Bilduren nazioarteko politikaren helburua dela Euskal Herria subiranotasunera eramatea: "Jendarte eredu bidezko bat nahi dugu eta nazioarteko beste estatu batzuek gurea onartzea". Horretarako bidean lan egiteko "printzipio sakonak" aletu zituen gero: "Herrien subiranotasuna, esku hartze ezina eta autodeterminazioa". Giza eskubideen karta dute oinarri eta negoziarioaren eta akordioaren alde egiten dute "beti, beti eta beti".

Norabide horretan, euskal jendarte "ahalik eta urrunen" eramatea da Zulaika kide duen lantaldearen zeregina. "Gure lana ez da EH Bildu intelijenteena izatea; gure jarreraren errealismoa mantentzen saiatzen gara, mundua den bezalakoa onartuta, ez guk nahiko genukeen bezalakoa".

Hori horrela izanik, Euskal Herria estatu burujabea eta independentea izatea dute xede, "munduarekiko duen konpromisoa aintzat hartuta". Norabide horretan, "eredu sozioekonomiko justua eta ekologikoa" izatea bilatzen ari dira.

Hasieran ezarritako dinamika iriutsita, gonbidatuaren hitzartzeak solasaldira bertaratuakoen ekarpenekin uztartu zituzten amaierara arte, munduaren konplexutasuna ulertzen saiatzeko ariketa errealista eginda.



GIZARTEA

Mende laurdena ospatzen hasteko

Sorgin Jaiak eragileko partaideek 25. urtez antolatuko dituzte herriko festa alternatiboak ekain amaieran. Urtemuga ospatzen hasteko ekimen berezia iragarri dute: Lasarte-Oriako I. Free Tourra, maiatzaren 9an egun osoz aurrera eramango dutena. Egitarau oparoa antolatu dute, euren historia kontuan izanda.

IDATZIA

Indarkeria matxistaren aurka



BURUNTZALDEKO ITAIA
ERAGILEA

Sinestezina dirudien arren, bada matxismoa ez dela existitzen eta emakumeon aurkako indarkeria kasuak, kasu isolatuak direla pentsatzen duenik. Sinestezina, Euskal Herrian 10 egunean 2 emakume erailak izan eta erailketa saiakera bat egon denean.

Gizonezko batek urrutze agindua urratuz, emakumea labanaz erasotu zuen eta emakumea ihes egin nahian zegoela hil da. Gertakari lazgarri hau 2026ko 4. erailketa matxista izan da.

Ez gara esajeratzen ari, errealitateak agerian uzten du matxismoak bere horretan jarraitzen duela, eta emakumeok emakume izateagatik erailak izaten ari garela. Hutsunez beteriko sistema honetan, argi dago instituzioen babes neurriek muga nabarmenak dituztela eta ondorioz, emakumeak babesgabe egoeran gelditzen garela.

Indarkeria matxistaren aurka posizionamendu irmoa hartzeko momentua da: eraso matxista bakoitzari aurre eginez eta horien aurka kaleak hartuz. Emakumeon aurkako jarrerak ez dezaten lekurik izan ez gure kaleetan, ez etxeetan, ez sare sozialetan, ez inon.

"Errealitateak agerian uzten du emakumeok emakume izateagatik erailak izaten ari garela"

Itaiatik jarrera eta ideia matxisten aurka borrokatzen jarraituko dugu: batetik, indarkeria jasan duen emakumea defendatzeko eta babesteko baldintzak borrokatuz; bestetik, eraso ororen aurrean irmotasunez eta eraginkortasunez erantzunez. Zentzu horretan, beharrezkoa da, matxismoaren

aurkako kontzientziazio lana eta borroka indartzea, matxismoari aurre egingo dion mugimendu indartsua eratuz.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatu!

GIZARTEA

Donostiako manifestazioarekin bat



LOOPA PLATAFORMA

"Kalitatezko osasun publikoaren defentsa" aldarrikatzeko asmoz manifestazioa antolatu dute Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek hilaren 18an, Donostian. 17:00etan abiatuko dira Bulebarretik. Ekintza horrekin bat egin du helburu horren alde Lasarte-Orian lanean ari den LOOPA plataformak eta herritar oro animatu du parte hartzera. "Hilabete luzez, gure herrian pairatu izan dugun egoera ezin okerragoa hobetu bada ere, oso urruti gaude oraindik, bai Lasarte-Orian eta bai oro har, kalitatezko Osasun Publiko batek eskaini behar dituen gutxieneko parametroetatik". Promesak egiteari utzi eta "benetako irtenbideak" emateko eskatu diete arduradunei.

GIZARTEA

Urratsez eta kidez

Txintxarri

Lasarte-Oriaren kultura ondarearen zutabeetako bat dira elkarte gastronomikoak eta horietako bazkide diren emakumeek mugarri nabarmena ezarri dute euren arteko topaketarekin. Bigarren edizioa hilaren 25ean egingo dute, udalarekin lankidetzan, eta, egun gutxi falta direla, udalerriko 11 egoitzetako egoira zer-nolako den ezagutu dugu ospakizun eta aldarrikapen ekitaldia prestatzen ari diren kideek emandako informazioari esker: Arrieskalleta, Buruntz-Azpi, Extremadurako Etxea, Intza, Lasartearra, Palomo Linares, Sausatxo, Semblante Andaluz, Ttakunenea, Udaberri-Andatza eta Xirimiri. Horietako gehienetako talde argazkiekin osatu ditugu artikulutxoak; Idoia Telleria Maritxalar *IDO hitza argi* argazkilaria herri-tarrak atera ditu guztiak.

ARGAZKIAK: IDOIA TELLERIA M

TTAKUNENEA

2016an sortu zuten Ttakunenea elkarte eta hiru urte geroago hartu zuten lehendakaritza (Ttakun elkarte osokoa ere bai) aurreneko emakumezkoak. Gaur egungo lehendakaria ere emakumezkoa da. Hasieratik izan da elkarte mistoa, gizonezko nahiz emakumezko bazkideekin.

Elkarte horrek gaur-gaurkoz dituen bazkide guztietatik 35 dira emakumezkoak.



ARRIESKALLETA

2007. urtean sortu zuten. 82 bazkide dituzte, eta, gutxi gorabehera, erdiak dira emakumezkoak. Zuzendaritza hasieratik izan da mistoa eta lehendakari kargua 2011n hartu zuen emakume batek aurreneko aldiz.



BURUNTZ-AZPI

1961ean eratu zuten. 70 bazkide dituzte eta bost dira emakumeak. 2011n misto bihurtu zuten (ordura arte, emakumeak, larunbat, igande, festa egun eta bezperetan soilik). 2015ean egin zen emakume bat elkartekide, aurrenekoz; lehendakaritza ez dute hartu oraindik.



EXTREMADURAKO ETXEA

1978an sortua, hasieratik izan da mistoa, baita sortzaileen taldea ere. 90 bazkide ditu gaur-gaurkoz eta 22 dira emakumezkoak. Lehendakari kargua 1996an hartu zuen aurreneko aldiz genero horretako pertsona batek.



INTZA

1947an sortu zuten eta pandemia garai betean, 2020an, onartu zuten emakumeak sartzea eta bazkide izatea. Urtebete geroago sartu zen aurrenekoa eta gaur egun lau dira. Emakumezko aurreneko lehendakaria 2024an izan zuten.

LASARTEARRA

1973an sortu zuten Lasartearra elkarte. Guztira 94 bazkide dira eta horietatik hiru dira emakumezkoak, aurtengo urtarrilaren 18an sartu direnak.



Hilaren 25ean egingo dute Emakume Elkartekideen II. Topaketa herrian barrena. Eskanea ezazu QR kode hau egun horretarako prestatu duten egitaraua ikusteko



urrats kide

Hori horrela izanik, urratsez urrats eta kidez kide aldatzen ari dira argazkiak eta egoerak, Lasarte-Oriaren ezaugarri diren aniztasuna eta elkartasunaren muinean esparru horretan (elkarte gastronomikoenean) egiten ari diren lana balioan jarrita.

Elkarte zaharretatik berrietara arte, bakoitzak izan duen bilakaera jorratu dugu. Batzuetan sorreratik izan dira partaide eta bazkide emakumeak, beste batzuetan ez, eta aurtengo urtarilaren 18tik esan dezakegu Lasarte-Oriako elkarte gastronomikoetan dagoela gutxienez bazkide bat, Lasartearra elkartearen sartu diren hiru pertsonekin. Albiste hori lehenago iragarri nahi zuten guztiek, eta, gura baino beranduago erdietsi izanagatik, pauso hori ere eman dute eta aurrerantzean askoz gehiago izateko lanean ari dira.

MARITXALAR 'IDO HITZA ARG'

Bazkideza mota desberdinak sustatzen ari dira Ttakunenean: banakakoa, binakakoa eta gazteei zuzendutakoa (18 eta 30 urte artean dituzten herritarrentzako eskaintza da, zehazki). Iñigo de Loiola kalean dagoen elkargune horrek bi eremu ditu: nagusia bat, mota askotako jarduerak aurrera eramateko; eta jangela-sukaldea bestea, otorduak egiteko. Ikasketetako lan, proiektu eta bestelakoak aurrera eramateko elkargune erosoak da.



PALOMO LINARES

1967an eraturia, emakumeak asteburuetan, jaiegunetan eta bezperetan soilik sar zitezkeen urteko hilabete gehienetan. 2007an estatutuak aldatu eta aurreneko bazkidea sartu zen. 83 bazkide aktibotatik hamahiru emakumeak dira. Aurreneko lehendakaria, 2024an.



SAUSTATXO

1977an sortu zuten Saustatxo elkarte eta hasieratik ez zen mistoa izan, eratu eta zenbait urtetara baizik. Urtez urte sartu dira emakume elkartekideak (55 kideetik bederatzira) eta gaur egungo lehendakaria ere emakumezkoa da.



SEMBLANTE ANDALUZ

1993an eratu zuten eta mistoa izan da hasieratik; gizonak eta emakumeak, eskubide bereberekin. 132 bazkideetatik ia erdiak, 65, emakumeak dira. Hiru hamarkada hauetan bakar bat ere ez da lehendakari izan oraindik.



UDABERRI-ANDATZA

2002an sortu zuten eta hasieratik izan da mistoa. Gaur egun 94 bazkide dituzte eta horietatik hamabost dira emakumeak. Sorrera egunetik bertatik emakumeak egon dira eta karguak bete dituzte elkartearen barruan.

XIRIMIRI

1989an sortu zuten eta emakumezkoak hasieratik izan dira bazkideak. Bertako kideek azaldu dutenez bazkideza partekatua dituzte: bikoteak batzuetan, seme-alabak beste batzuetan... Gaur egun gazteentzako talde giltzak ere badituzte; hamar lagunen artean kudeatzen eta ordaintzen dituzte.

Xirimiri elkartearen barne esparruan lantaldeak dituzte eta horiek ere kideztat hartzen dituzte.

Horrez gain, herriko eragileek sarrera irekita dute eta izaera hori hartu duten talde ugari egin zituzten hastapenetako bilerak Xirimiri elkartearen.



PILOTA

Lander Ortega herritarra eta Eneko Sagarmendi, Gipuzkoako Irekiko txapeldun

Xabat Askasibar eta Hodei Asteasu 20-15 gainditu dituzte finalean

Txintxarri

Martxoaren 22an Lasarte-Orian final erdiak jokatu ostean, hila-ren 12an Euskal Pilota Egokitu-tuko Master Cupeko Gipuzkoako Irekiko finalak jokatu ziren Zumarragako Beloki pilotalekuan. Adimen urritasun mailako zein gurpil aulkiko lehia estuak izan ziren eta kalitate handiko jaialdiaz gozatu zuten pilota zaletuek; lehen mailako kategoria nagusian Lander Ortega herritarrak Eneko Sagarmendi lagun txapela jantzi zuen; Sagarmendik 21. txapela du.

Lehenik adimen urritasuneko bikoteak hastapen mailako finala jokatu zen. Unai Diosek eta Daniel Calviñok Joel Garcia eta Tanya Fernandez gainditu zuten kategoria horretako lehen txapel-dunak izateko.

Jarraian, Ortega herritarrak eta Sagarmendik (gorri) Xabat Askasibar eta Hodei Asteasu (berdea) izan zituzten aurrez aurre. Final parekatua izango zela zirudien. Tanto luze eta gogorrak jokatu zituzten laurek



Ortega (ezkerrean) eta Sagarmendi, txapela eta oroigarriarekin. EPE MASTER CUP IREKIA.

Gipuzkoako irekiko emaitzak

Adimen urritasun maila

hastapena:

Dios-Calviño 20
Garcia-Fernandez 5

Adimen urritasuna:

Ortega-Sagarmendi 20
Asteasu-Askasibar 15

Urritasun fisikoa:

Lasa-De Anta 21
Senperena-Lizaso 25

Txapeldunordeak, Ekialdeko finalean

Aste Santua baino lehen, Errendimendu mailako bikotekako txapelketa amaitu zen. Martxoaren 21ean eta 22an, kategoria ezberdinetako finalak jokatu ziren eta Infantil I. mailako Ekialde txapelketan Intza KEko Irai Jauregi eta Julen Sagastibeltza izan ziren lehian.

Oiarpeko Apezetxea eta Egiguren bikotearen aurka neurtu zituzten indarrak. Laukoa kantxan ongi jardun arren, oirtzuarak 18-10 gailendu ziren eta txapela eraman zuten.

Oporraldiaren ostean, Intza elkarteko kideek txapelketa berriei ekingo diete. Federatuek bakarkako lau t'erdiko lehiari egingo diote aurre nagusi eta kadete kategorietan; eskolako gaztetxoek, aldiz, binakako Udaberri txapelketa hasiko dute.



INTZA KE

eta hamarnako berdinketara arte, alde txikia izan zuten bi bikoteak. Azken txanpan, aldiz, gorriak nagusi izan ziren. Beloki horma bat izan zen eta Ortégak lagunduta, huts gutxi egin zituzten. Berdeek ez zuten amore eman nahi, ordea eta Sagarmendi ekidin nahian zabala asko bilatuta, behin baino gehiagotan pilotak kontrakantxara ihes egin zien. Hori baliatuz, ihes egin

zuten gorriek eta partidaren jabe egin ziren.

Jardunaldiarekin amaitzeko lehia estua izan zen Aingeru Senperena-Beñat Lizaso gipuzkoar eta Joseba Lasa-Edorta de Anta nafarren artean. Norghegi-goka parekatuan atzelarietara eraman zuten finalaren zama, baina ongi landutako jokaldiei esker, Senperena-Lizasok garai-pena eskuratu zuten.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 18

ERREGE KOPAKO FINALA

• Atlético Madril - Real Sociedad SAD
21.00. La Cartuja, Sevilla, Andaluzian.

ASTELEHENA 20

INFANTIL F-8, TXAP. FASEA

• Añorga KKE B - Texas Lasart. CF
19.00. Rezola, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

OSTIRALA 17

INFANTIL MAILA, GIP. TXAP.

• Eguzki Andatza T- Eguzki Patricio T.
20.50. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

OSTIRALA 17

SENIOR III. MAILA, A-3

• Errotaundi ISB - Ostadar SKT
20.00. Azpeitiako kirol.

LARUNBATA 18

SENIOR II. MAILA, A-3

• Ostadar SKT - Eibar Saskibaloia
14.00. Maialen Chourraut kirol.

J. ERRENDIMENDUA, A-1

• Ostadar SKT - Inar Optika ISB
16.00. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, K. MAILA, A-2

• Ostadar SKT - Dinnteco Araba
18.30. Maialen Chourraut kirol.

K. PARTAIDETZA, A-1

• Ostadar SKT - Goierri Idegrafik
09.30. Maialen Chourraut kirol.

K. PARTAIDETZA, A-5

• Ostadar Beltza - Ostadar Urdina
11.00. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 19

K. PARTAIDETZA, A-1

• Eskoriatza KE - Ostadar SKT
11.15. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.

BOLEIBOLA

LARUNBATA 18

K. ERRENDIMENDUA, 1-6 P.

• Aldapeta Berdeak - Ostadar SKT
11.00. Txomin Madin., Donostian.

K. PARTAIDETZA

• Tolobolei C - Ostadar SKT
09.30. Uzturpe pil, Tolosan.

IGANDEA 19

EUSKAL LIGA, II. MAILA, 1/2

• Ostadar SKT - HRV Emb. Noalgos
10.30. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL MAILA, 7-12 P.

• Arizmendi - Ostadar SKT
11.00. Ibarra kirol., Aretxabaleta.

PILOTA

OSTIRALA 17

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA

• Intza (Olazabal) - Abantzu
18.00. 3. partida. Loidibarren pil.
• LAPKE - Intza KE (Diaz de Gereñu)
17.45. 4. partida. Lazkaon.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 1. MAILA

• Intza KE (Jauregi) - Tolosa
18.00. 4. partida. Loidibarren pil.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

• Bergara - Intza KE (Atorrasagasti)
19.00. 1. partida. Bergaran.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA

• Intza KE (Lasa) - Alde Zaharra
18.00. 1. partida. Loidibarren pil.

• Intza KE (Lopez) - Tolosa
18.00. 2. partida. Loidibarren pil.

LARUNBATA 18

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1. MAILA

• Intza KE (Artetxe) - Murumendi
11.00. 2. partida. Michelin pil.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. EMAKU.

• Intza KE (Iparragirre) - Aizkorpe
11.00. 1. partida. Michelin pil.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

• Alde Zaharra - Intza KE (Elola)
12.45. 1. partida. Egia, Donostian.

IGANDEA 19

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA

• Arrasate - Intza KE (Maiz)
10.30. 2. partida. Arrasaten.

ERRUGBIA

LARUNBATA 18

EUSKAL LIGA I. MAILA

• Univ. Bilbao R. - Gipuzkoa Sortzen
17.15. Bilbo, Bizkaian.

18 URTEZ AZPIKOA, 1. MAILA

• Zarautz Beltzak Eibar - Getxo RT
11.00. Atsokabar kirol gunean.

16 URTEZ AZPIKOA, 2. MAILA

• Zarautz Beltzak Eibar - Getxo RT
12.45. Atsokabar kirol gunean.

IGANDEA 19

OHOREZKO B MAILA

• Gipuzkoa Sortzen - CR Alcala
12.00. Asti, Zarautzen.

ATLETISMOA

LARUNBATA 18

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

• Herriko atleten aire libreko denboraldiari hasiera emango diote 16,18 eta 20 urtez

azpiko zein master mailako

Gipuzkoako txapelketarekin.
Egun osoa. Arrasaten.

IGANDEA 19

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

• Ostadar SKTko eskolarteko Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia jokatu dute.

Goiza. Irunen.

LARUNBATA 18/IGANDEA 19

EUSKADIKO TXAPELKETA

• Ostadar SKTko Eider Redondo gazteak proba konbinatuetako 18 urtez azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko du.

Durango, Bizkaian.

ASTELEHENA 20

7X7X7 ERRONKA

• Ana Isabel Pinedak 7x7x7 erronka eramango du aurrera.
16.00-21.00. Atsokabar kirol gunean.

BTT

IGANDEA 19

BTT LASARTE-ORIA

• BTT Lasarte-Oria Rural Kutxa probaz gozatua ahalko dute

BTTko zaletuek.

Goiza. Askatasunaren plazan.

TXIRRINDULARITZA

Xabat Martinek, jazarpen probako Espainiako mailota eta urrezko domina

Gutzira, lau domina jantzi ditu kadete mailako pistako Espainiako txapelketan

Txintxarri

Kadete eta junior mailako Espainiako txapelketek pista denboraldiari amaiera eman zioten hilaren 2tik 5era, Galapagarreko pistan (Madril). Urtarrilean Madison modalitateko Espainiako txapeldun izan ostean, Xabat Martin Mariezkurrena herritarrek banaka zein taldeka kadete kategoriako probei ederki egin zien aurre eta domina uzta eskuratu zuen: urrezko bat, bi zilarrezko eta brontzezko bat.

Lehen egunean banakako abiadura eta jazarpen finaletarako kanporaketak jokatu ziren eta bigarrenegun A finalean egotea lortu zuen Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak.

Finala hurrengo egunean lehiatu zuen herritarrek Mikel Meta nafarraren aurka. Lehia estua izan zen eta sei segundo hamarretara Martin garaile izan zen (2.19,362). Beraz, Espainiako txapeldun mailota eta urrezko domina eskuratu zituen.

Ordu batzuk beranduago, bigarrenegun izan zen Martin podiumera. Erlojupeko proban izan zen, 500 metroko bidea 35,087an egin zuen eta bigarren postua eskuratu zuen txirrindulari gaz-



Xabat Martin, jazarpen probako podiumaren gorenean. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

teak; Pau Brullet katalana izan zen garailea.

Hirugarren jardunaldian, taldekako abiadura eta jazarpen probak lehiatu ziren eta banakakoaren antzera, bigarren modalitateko A finalerako sailkatu zen herritarra Euskadiko kide David Diaz eta Beñat Mendizabalekin batera. Nil Jin Aparicio, Pau Brullet eta Iu Romero katalanek eraman zuten garaikurra; zilarra, aldiz, Euskadirentzat izan zen.

Azken jardunaldian, banakako probei jarraipena eman zi-

tzaian eta Lasarte-Oriako txirrindulari gazteak laugarren domina eskuratu zuen puntuazio proban. Gonzalo Vega madrildarra eta Aitor Ros murtziarrarekin borrokatu behar izan zen herritarra puntuak eskuratzeko. Baina Ros lehiaketako buru zela, azken metroetan Vegak itzuli bat irabazi eta garaipena eraman zuen 35 punturi esker; Rosek 17rekin amaitu zuen lasterketa. Martinek guztira 11 puntu batu zituen eta horiei esker, podiumeko hirugarren postuan izan zen.



9. kategoriako podiumean. TALEX MOTOR SPORT

Euskadiko txapelketak maiztaren 9an izango du hurrengo hitzordua Gorlan (Bizkaia), baina bien bitartean Madrilgo txapelketako proba izango du Lasarte-Oriako gidariak hilaren 25ean eta 26an.

ERRUGBIA

Sanchez, ederki Sei Nazioen jaialdian



EUSKADIRUGBY

Beltzak RTko harrobiko kide Eneko Sanchez (irudian, ezkerrean) 18 urtez azpiko Sei Nazioen jaialdian izan da lehia Espainiako Selekzioarekin, Vichyn (Frantzia). Hilaren 3tik 11ra, hiru partida jokatu zituzten lehoiek. Italia (33-52) eta Irlandaren (17-38) aurka lehen zati berdinduaren ostean, aurkariak gailendu ziren. Azken neurketan lehia estuaren ostean, 20-19 irabazi zuen Espainiak. Sanchez hiru neurketetan izan zen zelaian borrokan eta Irlandaren aurka, gainera, hamabostekoan izan zen herritarra.

IPAR MARTXA

Kirola eta kultura, Leon aldean



OSTADAR IPAR MARTXA

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek ez dute atsedunik izan Pazzo Astean. Gaztela eta Leongo txokoetan barrena izan dira kirola eta bisita kulturalak uztartuz. Leon eta Zamora (argazkian) hiriburuak, Ciñera de Gordoneko meatzeak, Carbajosa, Sobarriba, La Bañeza, Santa Colomba de la Vegako eliza, Pobladura del Valle, Benavente... ibilbide eta leku ederrak ezagutu dituzte bidaiak iraun duen bost egunetan.

SASKIBALOI

Aitor Anabitarte, Inveready Gipuzkoa Basketeko jokalaria

Primera FEB mailan lehiatzen ari den Inveready Gipuzkoa Basket talde donostiarrak jakinarazi du Aitor Anabitarte pibot lasarteoriatarra (2,03 metro luze neurtzen ditu) fitxatu duela denboraldia bukatu arte. Amerikako Estatu Batuetako unibertsitate mailan konpetitu du azken urteetan herritarrek.

Ligako azken partidak eta ACB ligara igotzeko playoffa jokatu ditu Anabitartek. Gipuzkoa



Fitxaketako irudia. GIPUZKOA BASKET

Basket seigarren postuan dago uneotan: hamasei partida irabazi eta 11 galdu ditu.

AUTOMOBILISMOA

Aitor Manso 9. kategoriako podiumera igo da Opakuako igoeran

Txintxarri

Euskadiko Mendi Igoeren denboraldiko bigarren proba lehiatu zen hilaren 11n, Araban. Opakuako igoeran 55 bat ibilgailu batu ziren eta Aitor Manso herritarra bertan izan zen Talex M3 ibilgailuarekin. Aurkari gogorak izan zituen, hala nola, Aitor Zabaleta bizkaitarraren Lola BMWa eta arazo teknikoei ere aurre egin behar izan zien gidari gazteak. Hala ere, 9. mailako garaikurra eskuratu zuen.

Entrenamendu saioak ongi joan ziren eta martxa hartzen joan zen Lasarte-Oriako gidaria. Lehen saioan 02.40,023 egin zuen eta ofizialean denbora ondu zuen,

02.31,181. "Markak ikusita irabazteko aukerak genituela uste genuen", adierazi du gidariak.

Baina beroketa saioak amaitzean arazo teknikoak zeudela konturatu ziren: "Abiadura kaxan hautagailu bat izorratu zen eta lehen, bigarren eta hirugarren martxak bakarrik sartu ahal genituen".

Ondorioz, puntuak eskuratzeko lehiatu zen Manso: "Denboraldia luzea da eta lehiaketa orokorrerako puntuak eskuratzeari, ezer puntuatzea baino hobea da".

Gauzak horrela, bere kategoriako irabazle izatea lortu zuen, baita sailkapen orokorreko laugarren postua ere.

FUTBOLA

Kopako finalaz gozatu ahalko dute herritarrek, Okendo plazako pantaila erraldoian

Udalak egun osoko egitaraua prestatu du herriak kopa giroa bizi dezan

Txintxarri

Real Sociedad eta Atletico Madrilen arteko Errege Kopa finala Sevillan (Andaluzia) jokatu da hilaren 18an. Hainbat izango dira La Cartuja estadioan zuzenean talde txuri-urdinari babesa ematera joango diren herritarrek. Udalak antolatu dituen jarduerari esker, Lasarte-Oriatik mugitu gabe ere aukera izango da Real eta batez ere, Jon Martin herritarra animatzeko.

Lasarte-Orian merkatari eta herritarrek kaleak txuri-urdinez atondu dituzte, baina herrian ere jai giroa izan dadin adin guztiei zuzendutako egun osoko egitaraua izango da erdialdean. Goiz eta arratsaldean puzgarriak izango dira Mercero plazan eta Txu-txu trenan ibiliko da Okendo plazatik aterata herriko kaleetatik barrena.

Eguerdiaren Oaintxe in de! txarangak jai giroa hedatzeko herriko plazetatik kalejira egingo du eta arratsaldean, 19:30ean, zaleekin batera erdialdeko kaleetatik barrena egingo du bidea. "Herritarrek Okendo plazan biltzea nahi dugu eta txarangarekin batera ibilbide txiki bat egitea, Okendo plazan amaituta", azaldu du Alonsok.



Udal ordezkariak pantaila erraldoia jarriko den Okendo plazan. TXINTXARRI

Eta 21:00etan, finalaz gozatu ahalko dute herritarrek, Okendo plazan. Horretarako Udalak 6x3 metroko pantaila erraldoia jarriko du. Eguraldi txarra eginez gero, futbol partidaren emanaldia mantenduko dela ere aurreratu dute: "Karpa jarriko da".

Realari babesa

Era honetara, Realaren zaleek taldeari euren babesa erakutsi ahalko diote Lasarte-Orian, baita ekipoko kide den Jon Martin herritarri ere. "Harro egoteko modukoa da Matarazzo presta-

tzailearentzat eta klubarentzat hain garrantzitsua den jokalaria bizilagun izatea. Realaren oraina eta etorkizuna da", azpimarratu zuen Txus Alonso Jailetako zinegotziak egitarauaren aurkezpenean.

Agustin Valdivia alkateak, bere aldetik, hitzorduaren osagai emozionala nabarmendu zuen. Txuri-urdinek jokatuak azken finala pandemia dela eta publikorik gabe lehiatu zela gogora ekarri eta "oraingoan elkarrekin eta modu kolektiboan bizitzeko aukera" dugula adierazi zuen.

ZALDI LASTERKETAK

Lehia politik Udaberriko denboraldiari hasiera emateko

Aterpea elkarteak denboraldiko sari guztiak babestuko ditu

Txintxarri

Donostiako Hipodromoak 110 urte beteko ditu uztailearen 2an. Udako saio bereziaren aurrekari modura, udaberriko denboraldia lehiatuko da apirilaren zehar; zehazki, hilaren 16an, 22an eta 29an hiru jardunaldi izango dira jokoan. Goizeko saioak izango dira eta guztira hamabost lasterketak gozatu ahalko dute zaletuek. Sari guztiek Lasarte-Oriako Aterpea merkatari, ostalari eta zerbitzu pertsonaletako enpresak batzen dituen elkarteko kide

baten izena izango dute. Ikus koadroa.

Lehia hasi da, beraz. Hilaren 16an, giro ederrean, zaldiak aurreten lehenengoz egin zuten lasterka Hipodromoko pistan.

Andatza Taberna sariak eman zion hasiera jardunaldiari. *Contesa*/Janaçek bikoak Bugati bihurtu hartu zuen burua eta ongi mantendu zuen azken metroetan aldea irekita.

Jarraian, lehia ederra ikusi ahal izan zen zuzengunean. *Naxos*/Gelabertek lasterketako burua



Contesa, helmugara iristen. DABID ARGINDAR

hartu zuten, baina atzetik zetozen *Bulnes*/Janaçek eta *Grand Son of Kalyx*/Fayos bikoak helmugara arte borrokatu ziren garaipena eskuratzeko.

Hirugarren lehia, *Tammani* eta Ricardo Sousak atzetik etorrita *Bravo*/Janaçek bikoari garaipena kendu zion azken metroetan.

Selekzioa eta Realarekin lehen gola

Real Sociedad taldeko Jon Martin herritarra izango da Kopa zelaian bertan biziko duena. talde txuri-urdinarekin zein 21 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin izan da lehia azken hilabetean eta ederki jardun da bietan.

Martxoaren bukaeran, Espainiako selekzioarekin egon zen lanean eta 2027ko Europako txapelketako sailkapeneko neurketak jokatu zituzten Txipre eta Kosovoren aurka; biak irabazi zituzten.

Ligari dagokionez, herriko defentsak hilaren 11n isunagatik ezin izan zuen Alavesen aurka jokatu. Baina astebebe lehenago, txuri-urdinek garaipen garrantzitsua erdietsi zuten ligan Levanteren aurka (2-0) eta lehen gola Martin lasarteoriatarrek sartu zuten, Carlos Soler taldekideak maisuki jaurtitako kornerra buruz sareraturata.



Martin, gola ospatzen. REAL SOCIEDAD

"Donostian ekimenak antolatzen ari direla dakigu eta sei kilometrotara bizi garen arren, herritarrek Lasarte-Orian Kopako finaleko jai giroa bizitzea nahi genuen," azaldu zuen Valdiviak. "Herriaren geratuz gero gainera, Lasarte-Oriako merkatari eta ostalarien onurarako izango da," atxiki zuen.

Horregatik, udal ordezkariak egitarauarekin bat egitera gonbidatu dituzte: "Jendea kalera ateratzea nahi dugu, kuadrillak elkartzeko, taberna eta balkoiak apaintzea eta Lasarte-Oria txuri-urdinez tindatzea".

Egitaraua

- **11:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era**, Haurrentzako puzgarriak, Mertzeko plaza. Txu-txu trenan, Okendo plazatik.
- **12:00etatik 13:30era**, Oaintxe in de! txaranga kaletatik.
- **19:30ean**, Zaleen topaketa, Okendo plaza.
- **20:00etan**, kalejira Oaintxe in de! txarangarekin.
- **21:00etan**, Koparen emanaldia, Okendo plazan.

Hilaren 16ko irabazleak

- **Andatza Taberna saria** *Contesa*/V. Janaçek
- **Aitonak Okindegia saria** *Naxos*/J. Gelabert
- **Alcar Leihoak saria** *Tammani*/R. Sousa
- **Patricio Taberna saria** *Tony Montana*/Foulon
- **Aldaz Hertz Klinika saria** *Lose your wad*/V. Alonso

Hilaren 22an, 10:50ean

- Arkupe Taberna
- Namie Sushi
- Arregi Elektrizitatea
- Ormazabal Loradenda
- Lasarte-Oria Orain Isaac Farré

Hilaren 29an, 11:05ean

- Arima Gastrotaberna
- Herriko Etxea jatetxea
- Buenetxea taberna kafetegia
- Monkey Park
- Milla finka administrazioa

Tony Montana/Foulon bikoak eraman zuen Patricio Taberna saria. Bikoak lehen itzuli amaieran buru jarri eta azken metroetan atzetik zetozen aurkarien aurka ongi mantendu zuen lehen postua.

Azken lehia, *Pinarellu*/Sikarovak eraman zuen lasterketako erritmoa, baina azken 400 metroetan bide osoan zehar atzetik izan zuen *Lose your wad*/Alonso bikoak aurre hartu eta helmugan garaile izan zen.

ATLETISMOA



Goizalde Pildain kirol zinegotzia eta erronka aurrera emango duen Ana Isabel Pineda atleta, aurkezpenean. TXINTXARRI

Diabetesaren aldeko 7x7x7 erronka, Atsobakar kirol gunean, hilaren 20an

Maratoiko distantzia egiteko 105 itzuli emango dizkio pistari Pinedak

Txintxarri

Zazpi maratoki, zazpi egunetan eta Euskadiko zazpi herri ezberdinetan; Gipuzkoan eta Bizkaian hiruna eta bakarra Araban. Guztira, 295 kilometro. Hori da Ana Isabel Pineda atletak hilaren 19tik 26ra egingo duen erronka. Ez da kirol jarduera soila izango, diabetesa ikustarazi eta ikerketarako dirua biltzea ere izango du helburu ekimenak. Lasarte-Oriako Udalak bat egin

du Gipuzkoako Diabetes Elkarteak (AGD) eta Diabetes Cure Research Association (DCRA) elkarteek babesten duten desafiorekin eta Pineda Atsobakar kirol gunean izango da hilaren 20an, 16:00etatik 21:00etara 42 bat kilometro gauzatzeko. Ekimena egingo den leku berean egin zuten aurkezpena hilaren 14an eta Irungo atletarekin batera izan zen, Lasarte-Oriako Kirol zinegotzi Goizalde Pildain.

Iruren hasiko da lasterka hilaren 19an eta hurrengo egunean, Lasarte-Oriako bigarren maratoia egingo du Pinedak; maratoiko kilometroak betetzeko 105 itzuli emango dizkio Atsobakar kirol guneko pistari. Hurrengo egunetan, aldiz, Errenteria, Santurtzi, Bilbo, Basauri eta Gasteizen ere aurrera eramango du balentria. Agerraldian nabarmendu den modura ez da hau gaixotasun hau ikustarazteko egiten duen

Zazpi hitzorduak

- Hilaren 19a – Irun
- Hilaren 20a – Lasarte-Oria - 16:00-21:00
- Hilaren 21a – Errenteria
- Hilaren 22a – Santurtzi
- Hilaren 23a – Bilbo
- Hilaren 24a – Basauri
- Hilaren 26a – Gasteiz

lehen erronka. 2024an 101 kilometro egin zituen Irungo Plaiandipi pistan eta Bartzelonan ere izan zen 24 ordu korrika.

Kiroletik haratago

Desafioa hasteko atzerako kontaketa hasi da eta atletak antolatzaileen ilusioa handia dela nabarmendu du. Horrez gain, ekimena kirolek haratago doala gogoratu du: "Diabetesaren borroka azalaraztea, gizartea sensibilizatzea eta gaixotasunaren sendabidearen ikerketan laguntzea du helburu. Baina diabetesa duten pertsonen egunerokotasunean ere motibazio plus bat izatea nahi dut".

Pildainek, berriz, horrelako proba bat Lasarte-Oriako egitea ohore bat dela nabarmendu du: "Lasarte-Oriarentzat harro egiteko modukoa da kirola, norberaren mugak gainditzea eta konpromiso soziala uztartzen dituen erronka baten parte izatea, diabetesa bezalako pertsona

askori eragiten dion errealitate bati ikusgarritasuna emanez".

Kirol zinegotziaren aburuz, horrelako ekimenek "kirola bizitza dela, bizia aldatu dezakeela, mugarik ez duela eta gizartean eragina izan dezakeela" erakusten dute.

Ekimenarekin bat egin

Kirolariak, jarduerako antolatzaileak zein udal ordezkariak herritarrek gonbidatzen dituzte hilaren 20an, kirol gunera gerturatu, korrikalariak animatu, korrika egin edo dortsal solidarioa erostera. "Hurbiltzen den jendearekin jai giroa sortzea espero dugu", adierazi du Pinedak.

Arestian aipatu modura, Irungo atletak lau orduz egingo du korrika. "Pixkanaka pixkanaka joango gara. Indarrak neurtu behar ditut erronka guztia egin ahal izateko. Gainera, giroaz eta jendeaz ere gozatu nahiko nuke", azaldu du.

Izena emateko edo jardueraren gaineko informazio gehiago eskuratzeko bideak: diabetesdcra.com/reto-7x7x7-diabetes-webgunea edo AGDren sare sozialak.

Egunean bertan ere izango da aukera ekimenarekin bat egin edo laguntzeko. Horretarako Atsobakarrek pistari jarriko da mahai bat. Horrez gain, parte hartzen dutenek ere zer jan eta edan izango dutela ere jakitera eman du Pildainek.

BTT

Lasarte-Oriako inguruetakoko mendiek BTT zaletuak hartuko dituzte, hilaren 19an

Ohiko txirringa eta bizikleta elektrikoarekin parte hartuko dute kirolariak

Txintxarri

Gipuzkoako kirol egutegian finkatuta dagoen probetako bat lehiatuko da hilaren 19an gure herrian, BTT Lasarte-Oria Rural Kutxa 2026. Probako antolatzaile zein babesleek udal ordezkariarekin batera edizio berri honen aurkeztu zituzten hilaren 10ean.

Ohikoa den moduan, BTT probako irteera eta helmuga Askatasuna plazaren inguruan izango dira eta goizeko 9:00etan emango zaio hasiera lasterketari.

Antolatzaileek probak zaletuen artean sortutako interesa azpimarratu zuten; dortsalak duela



Probako antolatzaileak eta udal ordezkariak, BTT probako aurkezpenean. LASARTE-ORIAKO UDALA

astetatik agortuta daude. Horrek BTT Lasarte-Oriako kirol egutegian duen sendotasuna eta erakargarritasuna baieztatzen du.

Era berean, azken urteetan izan duen hazkunde iraunkorra nabarmendu zuten agerraldian, bai parte-hartzeari dagokionez, baita eragin sozial eta ekonomikoari dagokionez ere. Izan ere, Lasarte-Oriako BTTak izaera inklusiboa du. Ohiko txirringa zein bizikleta elektrikoari irekia dago, eta maila ezberdinetara egokitutako ibilbideak ditu; hasiberriek zein esperientziadunek mendiko txirringaritzaz gozatu ahal izan dezaten ingurune natural pribilegiatu batean. Era horretara, publiko mota guztientzako hitzordu irigarria da.

Lasarte-Oriako Udalak bi atletetan lagunduko dio BTT probari; Kirol arloko zerbitzuen bidez ekitaldia antolatzen lagunduko du eta Sozioekonomia arloak bultzatutako *Tratu On*


Bat markari esker, babesle gisa ere parte hartuko du.

Udal arduradunek azaldutakoaren arabera, jarduerak tokiko dinamizazio ekonomikoan duen eragina positiboa da eta hortaz baliatuz, Lasarte-Oria eskualde barruko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonaletan erreferentziatzeko interesgune gisa ikustaraztea bilatzen du erakundeak.

Trafikoaren eragina

Trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko, Udaltzaingoa, probaren antolatzaileekin batera, berariazko protokolo bat ezarri du, zirkulazioaren arintasuna ahal den neurrian bermatzeko. Garrantzi handiko gertakariak aurreikusten ez den arren, herritarrei ulertzea eskatzen zaie, eta ohiko joan-etorriak aurreratzea gomendatzen da, proba egiteak eragin ditzakeen ondorio puntualak saihesteko.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Nahia
14 urte gure bizitzara iritsi zinenetik eta zein polita hazi zaren barrutik eta kanpotik! Oso harro eta pozik gaude! Zorionak bihotza!! Ekhi, Aita eta Ama.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurrak helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ	
OSTIRALA, 17	KNIESE
LARUNBATA, 18	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 19	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 20	KNIESE
ASTEARTEA, 21	KNIESE
ASTEAZKENA, 22	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 23	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbietza kalea 7, / 94-55 29 41

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

IRAGARKI

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldúa eta
Lierni Apaolaza
Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni
Rekondo, Gorka Alvarez,
Aizpea Amas, Maitane
Rebe, Jexux Artetxe eta
Oihane Puertas.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@takun.eus

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Liburu Baby Kluba ekimeneko saioak berrartuko dituzte 0 eta 3 urte arteko haurren artean irakurzaletasuna eta arte diziplinak sustatzeko. Txikiek euren familiekin parte hartzeko pentsatutako jardura da. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Azoka** Lore eta landareen feriarene hamahirugarren edizioa egingo dute Behemendi nahiz Dekolore elkarteek eta Lasarte-Oriako Udalak. Produktuz betetako postuak ez ezik, batez ere umei zuzendutako jokoak eta tailerrak ekarriko dituzte. Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.
- **Ospakizuna** Errege Kopako finalaren aurrean Realari eta batez ere talde horretan jokatzeko duen Jon Martini babesa emateko, egitaraua antolatuta du udalak:
- **11:30etik 13:30era**, haurrentzako puzgarriak, Merceron (eguraldi txarra egiten badu, Loidibarren pilotalekuan).

- **11:30etik 13:30era**, txutxu trenaren barrena (irteera, Geltoki kaletik).
- **12:00etatik 13:30era**, Oaintxe in deu! txaranga.
- **16:30etik 18:30era**, haurrentzako puzgarriak, Merceron (eguraldi txarra egiten badu, Loidibarrenen).
- **16:30etik 18:30era**, txutxu trenaren barrena (irteera, Geltoki kaletik).
- **19:30ean**, zaleen topaketa, Okendo plazan.
- **20:00etatik 20:45era**, zaleen kalejira.
- **21:00etatik 23:00etara**, partidaren emanaldia, Okendo pantailan.
- **Musika** Zero Sette Akordeoi Orkestrak, udalaren laguntzarekin, Lasarte-Oriako 23. Akordeoi Jaialdiaren aurreneko zatia aurrera eramango du. Antolatzaileek iragarri dute zein musikari gonbidatu dituzten: Marcel Loeffler akordeoi jotzailea eta Rodrigo Mosquera gitarra jotzaile eta abeslaria izango dira protagonistak. Leioako kontserbatorioko ikasleek ere parte hartuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:30ean.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Kriseilu gazte asanbladako kideek osatutako irakurle txokoaren barruko saioa egingo dute, Juana Dolores idazlearen *Girgileria* lana jorrazteko. Gaztelekua, 12:00etan.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako emanaldia programatu dute: *Ninja laukiduna: sorrera* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako emanaldian *La cena* filma proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Ahoztar Zelaieta Zamakona ikerketa kazetariak *El Pradalismo. El caso de los JoBuBi (Pradalismoa. JoBuBi-en gainbehera)* liburua aurkeztuko du, gaztelaniaz. Antonio Mercero, 19:00etan.

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA

- **Ikastaroa** Plazaolako landa eremuko ortu ekologikoen



TXINTXARRI

esleipendunentzat zuzendutako hastapen saioa da, gaztelaniaz. Ekin aurretik gune horretara sartu ahal izateko giltzak jasoko dituzte. Baratzeko ekologikoen eremua, 17:30ean.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Isabel Alba idazlearen *Tortugas* lana jorrazteko dute. Herriko idazle Olga Serranok dinamizatuko du saioa, gaztelaniaz. Kultur etxea, 18:00etan.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Okendo Zinema Taldeko kideek *Aro berria* filmaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.
- **Gastronomia** Bosna garagardo artisauek eta pintxo dastatuko dituzte ekimenean parte hartzen dutenek. Izena emateko azken eguna hilaren 22a da; Extremadurako Etxeko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 24 euro. Virgen de Guadalupe Extremadurako Etxearen egoitza, 20:00etan.

LARUNBATA 25

- **Literatura** Escape Room Literarioa ekimena antolatuta dute 7 urtetik gorako umeentzat. Lau eta sei lagun arteko ordu erdiko txandak egingo dituztela jakinarazi

dute antolatzaileek. Udal Liburutegia, 10:00etan.

- **Literatura** Liburu Baby Kluba ekimeneko saioa egingo dute 0 eta 3 urte arteko haurren artean irakurzaletasuna eta arte diziplinak sustatzeko. Txikiek euren familiekin parte hartzeko pentsatutako jardura da. Udal Liburutegia, 11:00etan.

- **Ospakizuna** Emakume Elkartekideen II. Topaketa aurrera eramango dute, egitarau honekin:
- **11:00etan**, Palomo Linares elkartean, txupinazoa eta ongietorria.
- **11:15etik aurrera**, pintxo-potea eta kalejira Oaintxe in deu! txaranga kideekin batera. Topaketaren antolatzaileek jakinarazi dute hiru elkartetan jango dituztela jaki goxoak: Palomo Linares, Arrieskalleta eta Xirimiri.
- **14:00etan**, bakarriketa kutsuko gogoeta egingo dute Semblante Andaluz elkartean, Beatriz Egizabalekin batera.
- **14:30ean**, Semblante Andaluz elkartean bazkalduko dute. Menua hau izango da: salmorejo andaluziarra, flamenkinak, andaluziar erara gisatutako haragia eta banilla izozkidun torrada. Edateko ardoa, sagardoa edota ura izango dituzte aukeran, baita bazkalosteko kafea edota infusioa ere.
- **17:00etan**, Semblante Andaluz elkartean

LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette orkestrak Lasarte-Oriako 23. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du udalaren laguntzarekin. Jakinarazi du Marcel Loeffler eta Rodrigo Mosquera musikariak gonbidatu dituela, baita Leioako kontserbatorioko ikasleak ere. Sarrerek, 6,10 eurotan. Kultur etxea, 18:30ean.

egoitzan, bingo musikatuari ekingo diote. Arratsaldean zehar sorpresak izango dituztela iragarri dute.

- **Antzerkia** Ados Teatroa konpainiak *52 Hertz* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA

- **Dantza** Jendaurreko hilabeteroko saioa egingo dute Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrek. Okendo plaza, 12:00etan.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako emanaldian *Tafiti eta lagunak* filma proiektatuko dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako emanaldian *Sorda* filma proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

MAIATZAK 9

- **Ospakizuna** Sorgin Jaiak eragileko partaideek 25. urtez antolatuko dituzte herriko festa alternatiboak ekain amaieran. Mende laurdeneko akelarrea nolanahikoa ez denez, urtemuga ospatzeko ekimen berezia prestatu eta iragarri dute: Lasarte-Oriako I. Free Tourra, maiatzaren 9an egun osoz aurrera eramango dutena.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Azoka

Lore eta Landareen XIII. Azoka aurrera eramango dute Behemendi zein Dekolore elkarteek eta Lasarte-Oriako Udalak. Produktuz betetako postuak ez ezik, batez ere etxeko txikienei zuzendutako jolasak (egurrezkoak, tradizionalak) eta tailerrak aurrera eramango dituzte. Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.



zubieta LANBIDE ESKOLA

**ATEAK ZABALIK
jardunaldiak 2026**

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- 📅 Apirilaren 21ean 17:00 - 18:45
- 📅 Apirilaren 25ean 10:00 - 11:30

**GOI-MAILAKO ZIKLOAK ETA
ESPEZIALIZAZIOA**

- 📅 Apirilaren 23an 17:00 - 18:45
- 📅 Apirilaren 25ean 11:30 - 13:15

EZAGUTU GAITZAZU:

- ✉ eskola@lhzubieta.eus
- ☎ 943 36 46 00

EMAN IZENA




AZKEN LEKUAK

**LH5-LH6
AZKARATE
UZTAILAK 2-11**

363 € / 327 €

AZKARATE+UDAKO TXOKOAK

OSOA

- 9:00ETATIK 492€ / 468€
- 10:00ETATIK 460€ / 437€

+ JANGELA AUKERA EGONGO DA. PREZIOAK AURRERAGO.

PREZIOAK: BELTZEZ EZ BAZKIDE / GORRIZ BAZKIDEAK

UDALEKUAK



Ttakun
Kultur Elkartea

943-37 14 48
665 49 75 02
GELTOKI KALEA, 4
LASARTE-ORIA
ktglasarteoria@ttakun.eus





BAZKIDETZA

TTAKUN BAZKIDETZA

60 €

URTEAN

BAZKIDETZA GAZTEA (18-30)

30 €

URTEAN

TTAKUN K.E.




TTAKUN KULTUR ELKARTEA
Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48

